

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA

Sozietatearen izena

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

IFK

Q01005471

Izaera

Zuzenbide publikoko ente publikoa.

Kontabilitate-arabidea

Publikoa.

Aurrekontu-arabidea

Mugatzailea.

Sorrera

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa [titulartasun publikoko datu-fitxategiei eta datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 LEGEAREN](#) bidez eratu zen zuzenbide publikoko erakunde gisa, nortasun juridiko propioarekin eta gaitasun publiko eta pribatu osoarekin, eta, bere eginkizunak betetzerakoan, independentzia osoz jarduten du administrazio publikoetatik aparte.

Sail-atxikipena

Ez da aplikatzekoa.

EJSN

8411 Herri Administrazioaren jarduera orokorrak.

Funtzioak

Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenen esparruan, agentziak honako eginkizun hauek ditu:

- a) Datuak babesteko legeria betetzen dela zaintzea, eta legeria horren aplikazioa kontrolatzea, datuei buruzko informazioa jasotzeko eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurkaratzeko eta baliogabetzeko eskubideei dagokienez.
- b) Legeetan eta erregelamenduetan aurreikusitako baimenak ematea.
- c) Hala badagokio, eta beste organo batzuen eskumenei kalterik egin gabe, tratamenduak datuak babesteko alorrean indarrean dagoen legeriaren printzipioetara egokitzeko jarraibide zehatzak ematea.
- d) Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea.
- e) Datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonari.
- f) Tratamenduen arduradunei entzutea eta datu-tratamendua indarreko legeriaren datu-tratamendura egokitzeko beharrezko neurriak har ditzatela eskatzea, eta, hala badagokio, tratamenduak bertan behera uzteko eta fitxategiak baliogabetzeko agindua ematea, baldin eta legeria horrekin bat ez badatoz, nazioarteko datu-transferentziei dagokienez izan ezik.

- g) Zehatzeko ahalmena erabiltzea, eta, beharrezkoa izanez gero, bere iritziz lege honetako 22. artikuluan tipifikatutako arau-hausteen erantzuleak direnen aurka diziplinazko prozedura hasteko proposatzea, eta hartu beharreko zuhurtziak neurriak hartzea, salbu datuen nazioarteko transferentziei buruzkoan. Hori guztia lege honetan zehazturik dagoen moduan.
- h) Lege hau garatzeko xedapen orokorren proiektuei buruzko aginduzko txostenak egitea.
- i) Bere eginkizunak betetzeko beharrezko duen laguntza eta informazio guztia eskatzea fitxategien arduradunei.
- j) Datu pertsonalen fitxategien publikotasuna zaintzea, eta, horretarako, urtean behin, fitxategi horien zerrenda argitaratuko du Datuak Babesteko Euskal Bulegoak erabakiko duen informazio osagarriarekin.
- k) Urteko memoria bat idaztea eta Eusko Jaurlaritzako lehendakariordetzari bidaltzea.
- l) Estatistika-datuen bilketari eta estatistika-sekretuari dagokienez estatistika-eginkizun publikoari buruzko legeriak ezartzen dituen xedapenak betetzen direla zaintzea, eta jarraibide zehatzak ematea, estatistika-xede soilekin eraturako fitxategien segurtasun-baldintzak ebatzea, eta 2/2004 Legearen 24. artikulua aipaturako ahalmena baliatzea.
- m) Estatuko Datuak Babesteko Bulegoari eta beste autonomia-erkidego batzuetako antzeko erakundeei laguntzea datu pertsonalen fitxategien segurtasuna eta herritarrek fitxategi horiei dagokienez dauzkaten eskubideak hobeto babesteko.
- n) Lege horren 2.1 artikuluan aipaturako administrazio publiko erakunde eta korporazioek datu pertsonalen babesaren alorrean eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek lege honen aplikazio-eremuan bildutako datu pertsonalen tratamenduei dagokienez egindako kontsultei erantzutea
- ñ) Lege eta erregelamenduen arabera bete behar dituzten gainerako guztiak.

Sailkapena kontabilitate nazionalan

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

Gobernu-organoak

Zuzendaria, Aholku Batzordea eta estatutuan ezarritako gainerako guztiak dira bulegoko gobernu-organoak.

Zuzendariak Agentzia zuzentzen eta ordezkutzen du. Bere eginkizunak askatasun osoz eta objektibotasunez beteko ditu, eta eginkizun horiek betetzean ez da ezein aginduren menpe egongo. Dena dela, aholku-batzordeak, bere zereginak betetzean, ezer proposatzen badio, zuzendariak entzun egin beharko dio. 2012ko urteko kontuak egitean, bulegoko zuzendaria honako hau da:

Iñaki Pariente de Prada jauna

2012ko aurrekontuak

www.euskadi.net (6. liburukia)

2012ko Aurrekontuen Likidazioa eta Urteko Kontuak

[2012ko ekitaldiko helburuak betetzeari buruzko memoriari, urteko kontuei eta finantza-kontrolari buruzko txostena.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitudo nagusiak

Aktiboa guztira	3.876.460 €
Ondare garbia	3.660.548 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	0 €
Batez besteko langile-kopurua	14

Sozietatearen helbidea eta webgunea

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71-3 01008, Vitoria-Gasteiz (Araba)

www.avpd.euskadi.net